



BARREN

TOKIKOM



Familian abenturan

ORBE



PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK



atzak
taberna

San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak honako lanpostuak
betetzeko deialdia egin du:

Doimak

⊗ LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUTEN MUNTATZAILEAK.
(INGELESEKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

Interesdunak bidali zuen kurrikulumak cblanco@doimak.es helbide elektronikora
edo 943 740 988 (Claudio) telefonora deitu

matricúlate en
aek
100%
AFECTIVO



Elgoibarko AEK euskaltegia
Gabriel Kurutzelaegi 10
(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)
Tel.: 607 601 423
elgoibar@aek.eus

Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan
eta bekak udalari esker.



SONIA

"Batez ere, seme-alabengatik"



IDOIA

3. perfila = EGA lanerako



MIRLYN

*"Soy de Venezuela y
empeze a aprender euskera
por mis hijas"*



OLGA

"2. perfila, lanagatik"



ENEKO ITURBE

"Ni gauza askok liluratzen naute, baina ez naute horrenbestek harritzen"

Kaixo, Ana! Eguraldiak nahiko nahastuta gaituen arren, egia da udak agur esan digula. Batzuk penaz jasoko dute berri hau, baina irailak ere badakar poztasunik: moda munduan urteko hilabete garrantzitsuena da! Izan ere, orain hasten dira munduko pasarelak, eta horietan datorren udarako proposamenak erakusten dituzte. Biziki interesgarriak dira! Baina beno, ez gaitzen hainbeste currelatu...

Gaur, udazken honetarako proposamen punteroenen inguruan hausnartzea gustatuko litzaidake. Egia esan, ni gauza askok liluratzen naute, baina, ez naute horrenbestek harritzen. Eta horregatik, gustatuko litzaidake zuk tendentzia hauei ikusten dizkiezun aukerak azaltzea.

Gehien harritu nauena, udazken-negu honetan eramango diren koloreak dira: arrosa- hauts tonok eta urdin- baby kolorea. Badirudi oso fresko sartuko garela udazken honetan, aizu! Ordea, beste batzuen ahulezia agertzen dela badakigu... Eta oraingo

honetan camel eta marroiak izango dira lur koloreekin eta pastel kuttuekin nahasturik ikusiko ditugunak. Horrez gain, ez da atzean utzi dezakegun datua kolore berezienak metal efektuarekin ikusiko ditugula. Itxura ederra du, ezta?

Kolore hauek hainbat eta hainbat tela eta arropatan izango dira, baina badaude batzuk denboraldi honetako punteroetak direnak: denima, felpak, larrua eta tapiz itxurakoak. Arropatan, berriz, hiru laurdeneko gonak, bomberrak edo bikerrak jarraituko dute protagonista izaten. Atentziora praketan jarri beharra dugu, hementxe antzemango baitugu aldaketa handiena.

Azkenengoz, tendentzia aldetik badaude hiru benetan harrigarriak suertatu zaizkidanak: 60ko eta 70eko hamarkadara itzulerara, homless estiloaren sarrera eta kirol kuttua duen arropa.

Ez nuke idatzi hau amaitu nahi zuri galdera bat egin gabe: tendentzia hauei buruz duzun iritziaz haratago, zer etorkizun ikusten diezu berauei Elgoibar eta Mendaro bezalako herrietan?



ANA ALBERDI



"Euskaldunak oso sinpleak gara janterako orduan, ez oso apurtzaileak"

Egia da, udara badoa, eta udareekin batera udarako soineko, galtza motz eta bainujantziak. Udazkena gainean dugu, eta hostoak erortzen diren honetan, jertse lodiak, galtza bakeroak eta botak datoz, besteak beste.

Denboraldi berria datorren bakoitzean gustuko ditudan marka eta firmen bilduma berrien usainean hasten naiz, eramango diren kolore, oihal eta formei erreparatzeko, eta nire estilora moldatuko direnak fitxatzeko. Tendentzia berritzaileak eta apurtzaileak ere ezagutzea gustatzen zait, jantziren bat edo beste armairura gehitu eta nire burua desafiatzeko.

Esan duzunak ordea erabat apurtu nau, izan ere, gorroto ditut arroxa eta urdin kolore argiak. Uste dut oso jende gutxiri ematen diotela ondo. Aldiz, *jean*-en, *bomber*-en eta batez ere larruaren maitale sutsua naiz. Negurako kolore neutroak gustatzen zaizkit; beltzak, grisak, txuriak eta camelak. Jertse

lodietan muturra sartu eta goxo-goxo nire burua besarkatzen dut askotan. Metal kuttuei dagokienez, ohitu egin beharko naiz (eta gara), Eneko.

Gara esaten dut, uste dudalako euskaldunok oso sinpleak garela janterako orduan; ez oso apurtzaileak (salbuespenak salbuespen). Pastel koloreak eta metalizatuak gustoko dituztenak egongo dira seguraski, baina apustu egingo nuke ez direla gehiegi. Hala ere, zorionez, aurtengo tendentziak ez ditut beste urte batzuetakoan bezain *extrabaganteak* ikusten, eta beraz, agian jolasteko eta norberak bere izaerara moldatzeko aukerak ere zabalagoak izan daitezke. Batek daki.

Beraz, Eneko, agian tendentziak modu apal batean ikusiko ditugu Elgoibar eta Mendaroko kaleetan, eta hiri handietan, ordea, gurean baino gehiago arriskatuko direla esango nuke. Norberak egin dezala bere apustua, edo, zergatik ez, arriska dezala bere armairua.



AINHOA ETXEBERRIA

Nutrizionista

Aromaterapia

ematen ari garenean, ezin dira erabili.

- Hilerokoarekin gaudenean, neurri txikitetan erabili behar dira.

- Argitik, berotik eta indar elektromagnetikoetatik urrundu behar dira.

- Olioek su hartu dezakete, beraz su-tatik urrundu behar dira.

Non eta nola aplikatu olio esentzialak:

- Lurrinak: tanta bat edo bi ipini zapi batean eta arnasa hartu. Ur irakitan ipini bi edo lau tanta, burua tapatu toalla batekin eta arnastu.

Zein kasutan gomendatzen dira lurrinak? Antsietate, katarro, buruko min, sinusitis, neke fisiko eta mentalarentzat, erlaxatzeko, estimulatzeko...

- Konpresak: Bi modutan erabil ditzakegu: bero eta hotz. Ontzi batean ur hotza edo beroa ipini eta hiru edo bost olio tanta gehitu, gero kotoia, toalla edo gasa ur horretan sartu eta aplikatu.

1. Beroak: artritisa, kalanbreak, hilerokoak sortutako minak, belarriko minak, lumbagoa, katarroak...

2. Hotzak: buruko mina, biharamuna, kolpeak, ziztadak, azal gorritasuna...

- Bainuak: bainera ur epelarekin bete, bost edo zazpo olio tanta bota eta 10-15 minutu egon uretan, ez gehiago. Oso erabilgarriak dira erlaxatzeko, desintoxikatzen aurka, artikulazio minei aurre egiteko, likido erretentzioen aurka, lo egin ezinaren aurka...

- Masajeak: bai aurpegian baita gorputzean ere. Olio esentzialak, olio begetalekin nahastuta erabiltzen dira. zelulitari, zimurrei, kontraktuei, idorre-riari, artikulazio minei, antsietateari, zirkulazio arazoei, txiza-erretentzioari, lorik egin ezinari, buruko minei... aurre egiteko eta baita dranatzaille modura ere.

Aromaterapia olio esentzialak eta esentziak deituriko kontzentratuak erabiltzen dituen teknika da, osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko zein azalaren osasunarentzako dena.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Azalean zuzenean ezin dira ipini, olioren batekin nahastu behar dira.

- Ezin ditugu erabili, baldin eta eguzkitan egon behar badugu. 6-8 ordu itxaron behar dugu.

- Ezin dira begietan erabili.

- Gehienak, haundunaldian eta bularra

“Aromaterapia osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko zein azalaren osasunerako teknika da”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainhoa Andonegi **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZARATA

Herriko erdi aldeko auzokidea naiz, Plaza Txikikoa. Bizitza osoan bizi izan naiz bertan eta badakit hor bizi-tzeak peajetxo bat ordainarazten didala; ulertzen dut hainbat ekitaldi herriko erdi aldean egitea, herritarrei erraztasunak ematearren. Baina hori gauza bat da, eta beste bat da jasan beharreko zarata-maila.

Zarata, urtean zehar, demasekoa izaten da berez: zabor biltzea, birziklatzea (lau bider egunean), garbiketamakineria, garbigailu motordunak... Gure ingurunea zaintzearen edukitzen omen ditugu oinarritzko zerbitzu hauek; horretaz kontzientziatu beharra daukagu... Seguru nago zerbitzu hauetan

ere dezente jaitsi daitekeela zarata-maila. Izan ere, nik dakidala, zarata bera ere kutsadura da, kontaminazioa.

Eta gaurko harira: jaiak. Gustura eta pozarren hartzen ditut, bai. Baina Udalbatza osoa gonbidatuko nuke jailetan neure etxean 24 ordu egotera: barraken zarata jasanezina da, egunez zein gauez (benetan, gehiegikeriarik gabe). Eta hau, nik dakidala, ez da oinarritzko zerbitzu bat. Ezin da musikarik edo giroterik jarri baina askoz baxuago? Seguru baietz. Seguru arauak badaudela, denerako egoten dira-eta. Zentzu pixka bat ere nahikoa litzateke, oinarritzko eskubide batzuk bermatzeko: atsedean hartzekoa, etxean lasai egotekoa...

Neure betebeharrak zintzo-zintzo betetzen ahalegintzen naizela uste dut. Gauza bera eskatu beharko zaie herritarren erakundeei, ezta? Espero dut, ba, gure herriko agintariek kexa hau jasotzea eta zuzentzeko neurriren bat hartzea. Eskerrik asko.

I.I.

HEMEN eta ORAIN DENON HERRIA



Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakartzaia

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU
ehbildu

Irailaren 22tik 25era izango da garagardo feria Sanlo Eskubaloi Taldeak antolatuta



Sanlo Eskubaloi Taldeak garagardo festa antolatu du. Irailaren 22an hasi eta 25era arte ez da janik, edanik eta musikarik faltako Maalako parkean. Egue-nean, 18:30ean, karpa zabaldu eta 21:00etara arteko pintxo potean ganbak plantxan dastatzeko aukera izango da. 22:30erako Garazi Ayesta eta Xabi Larrañagaren kontzertu akustikoa dago iragarrita.

Ostiralean 18:30ean irekiko dute karpa eta berriz izango da pintxo potea. 22:30ean The Romanticos taldeak joko du eta gero, bingo solidarioa egingo dute. Larunbatean ere karpako jai giroaz gozatu ahal izango da, eguerditik aurrera. Muskuiluak eskainiko dituzte pintxopotean, eta musika ere egongo da. Gauean berriz egingo dute bingo solidarioa.

Ekitaldi guztiak garagardoaz eta jatekoz lagunduko dituzte. Ukondoa, saltxitak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak egongo dira egunero jateko moduan eta igandean paella erraldoia prestatuko dute.

Irailaren 30ean hasiko dira robotika tailerrak

Bi robotika tailer antolatu ditu Udalak industria sektorea bultzatzen jarraitzeko. Parte-hartzaileek programazioarekin, robotikarekin, muntaia-rako abileziarekin, sentsorikarekin... lotutako proiektuak egingo dituzte modu dibertigarrian eta jolas-giroan.

Irailaren 30ean hasi eta 2017ko maiatzaren 28an bukatuko dira. *Robotika dibertigarria* Arreiturre Institutuan egingo dute barixakuetan 17:30etik 19:30era eta zapatuetan 11:00etatik 13:00era.

Beste tailerra 14 urtetik gorakoei zuzendutako tailerra da: *Robotika digital open lab*, industria 4.0n murgilduko dena, barixakuetan 18:00etatik 20:00etara IMHko Asmaola eraikuntzan.

Izena emateko epea irailaren 23ra artekoa da honako helbidean: www.elgoibar.eus/Robotika.html. Tailer bakoitzaren prezioa 36 euro ingurukoa izango da hileko eta ikasleko (izena ematen duten ikasle kopuruaren arabera aldatu daiteke).

Euskara ikastaroak eskainiko dituzte Mendaron

Mendaroko Udalak euskara eskolak eskainiko ditu Elgoibarko Udal Euskaltegiarekin elkarlanean. Euskaraz ezer ez dakitenentzat, hitz egin edo idazteko erraztasuna hartu nahi dutenentzat edota tituluren bat lortu nahi dutenentzako ikastaroak prestatu dituzte. Maila bereko zortzi lagun behar dira gutxienez taldea osatzeko. Interesatuak irailaren 23ra arte dute udaletxean izena emateko epea.

Gure Esku Dagok herritarrek emandako elikagaiekin osatutako otarra zozketatuko du irailaren 24an

Elgoibarko Gure Esku Dago taldeak ikasturte berrirako asmoak finantzatzeko produktuz beteriko otarra zozt egingo du. Otarraren zozketarako zenbakiak herriko tabernetan daude salgai, euro batean, eta zozketa irailaren 24an egingo dute Kalegoen plazan. Otarra herriko saltzaile eta ekoizleek emandako produktuekin osatu dute.

Mintxetako igerilekuen denboraldia modu positiboan baloratu du Kirol Patronatuak



Domekan (irailak 11) amaitu zen bainu denboraldia Mintxetako igerilekuetan, eta Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, 40.411 erabiltzaile zenbatu dituzte ekainaren 11tik irailaren 7ra bitartean (2015ean 45.123 erabiltzaile izan ziren). Balorazio "oso positiboa" egin du Udal Kirol Patronatuak, bai erabiltzaile kopuruagatik, istripu larririk gertatu ez delako, eta Eibarko Kirol Patronatuarekin egindako akordioagatik. Aurten Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko bazkideek Eibarko Orbea kiroldegiko igerilekua erabili ahal izan dute abuztuan eta 100 bazkide pasa dira igerileku hartatik. Bestalde, Eibarko Kirol Patronatuko bazkideek abuztuan Mintxetara sartzeko aukera izan dute eta 500 eibartar pasa dira Mintxetatik hilabete horretan.

Uztailaren 19a jendetsuena

Ekainean eta uztailean eguraldiak ez zuela asko lagundu gogora ekarri dute Udal Kirol Patronatuko arduradunek, baina, hala eta guztiz ere, bi hilabeteotako zortzi egunetan mila erabiltzaile baino gehiago izan ziren. Uztailaren 19a izan zen egunik arrakastatsuenak, 1.489 erabiltzailerekin. Abuztua eta iraila eguzkitsuak izan arren, erabiltzaile kopuruak behera egin du hilabete horietan, elgoibartar asko kanpora joaten direlako. Azken urteotako erabiltzaile kopuruak honakoak izan dira:

2016:	40.411
2015:	45.123
2014:	34.522
2013:	53.527
2012:	52.000
2011:	42.065

Elgoibar eta Bilbo arteko trenak 30 minutuko maiztasunarekin irtengo dira

Altzako tren geltokia zabalitzearekin, Euskotrenek bere tren zerbitzua hobetu du, eta besteak beste, Debabarrenean ere nabaritu dira hobekuntza horiek: Elgoibar eta Bilbo arteko trenak 30 minutuko tartearekin irtengo dira aurrerantzean, bidaiari gutxiko ordu tartetean ere. Gaur egun 60 minutuko tartearekin irteten dira.

Ate irekiak Mendaroko ludotekan

Mendaroko ludotekak ate irekien astea egingo du irailaren 26tik 29ra. Izena eman nahi dutenek 44 euro ordaindu beharko dituzte (urtarrilean izena emanaz gero, 27 euro). Familia ugariak %30eko deskontua izango dute. Informazio gehiagorako 943 033 298 telefonora deitu daiteke.

Beinke Bertso eskolarako izen-ematea zabalik

Bertsolaritza ezagutzeko, ahozkotatua eta komunikazioa lantzeko eta hizkuntzarekin jolasteko Beinke bertso-eskola hastear da berriz. Izen-ematea Internet bidez edo Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan bulegoan egin daiteke irailaren 23a baino lehen. 50 euroko kuota ordaindu behar da urtean (bazkideek 45€). Saioak martitzenetan egingo dituzte. 5-9 urte bitartekoek 17:30etik 18:30era eta 9 urtetik gorakoek; 18:30etik-19:30era.

Kilometroak jaira joateko autobusak Elgoibar eta Mendarotik

Urriaren 2an ospatuko dute Kilometroak, Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaia, Bergaran, eta Elgoibartik eta Mendarotik hara joateko autobusak antolatu dituzte. Elgoibarko autobusa Elgoibarko Izarrak antolatu du. Izena eman nahi dutenek 943 741 626 telefonora deitu dezakete. Mendaroko autobusa, berriz, Udalak antolatu du. Txartelak Mendaroko Gaztelekuan eta Morroskilon jarri dituzte salgai, bost euroan. Txartelak erosteko azken eguna irailaren 25a izango da.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Txakur kakak herriko kale eta zubietan: “Trenbide kalean, 11. zenbakian, denda parean txakur kakak uzten dituzte jabeek eta nazkatuta gaude beste jabe batzuen kakak jasotzeaz”. Urazandi kaleko 5. eta 7. portaletako aurrerako aldean estalpe bat dago eta han ere txakur kakak egoten direla esan du bizilagun batek, baita ere txakurrek txiza egiten dutela sarreran. “Umeak jolasean ibiltzen dira eta ez da batere txukuna. Neurriak hartu beharko lirateke eta txakurren jabeek bizilagunekiko errespetua eskatu nahi diet”.



Pintadak hormetan: “Herriko hainbat horma mezu eta pintadak beteta agertu ziren orain dela aste batzuk. Bizikidetzara eta errespetua ezinbestekoak dira herritarren bizikidetzara bermatzeko, eta horrelako ekintzek ez dute batere laguntzen. Herriko hormak ez dira horretarako. Errespetu apur bat, mesedez. Espazio publikoen erabilera zuzena egitea eskatuko nuke, denon hoberako izango da-eta”.



Urazandi kaleko zuloak: “Urazandiko bizilaguna naiz eta gure auzoan Maalako biribilgune gaineko kalean bidea zuloz beteta dago aspaldidanik. Pentsatu nuen biribilgunea konpondu zutenean probestuko zutela zulo horiek ere tapatzeko, baina ez dute ezer egin. Ba al dago konpontzeko asmorik?”. Udaletik jakinarazi dute biribilgune gaineko kale horretako zuloak herriko beste zulo batzuekin batera konponduko dituztela.



Trenbide kaleko zebrabidea kendu egin dute: “Trenbide kaleko obrak direla-eta, zebra-bide bat ezin da erabili, eta ez dute horren ordezkorik jarri. *Karakol* zubiaren parean badago zebra-bidea, baina estazioko ate nagusitik irten eta osasun zentro aldera doanarentzat ez da batere eskura geratzen zebra-bide hori. Jendeak ahal duen moduan gurrutatzen du, beraz, errepidea. Obrak iraun bitartean, tren geltokiko ate nagusiaren parean behin behineko zebra-bide bat jartzea ondo legoke. Eskerrik asko”.



Urazandiko parkean ariketak egiteko makinak jarri dituzte: “Txalo bat eman nahi diogu Udalari, Urazandin ere jende nagusiak ariketa fisikoak egiteko hainbat makina jarri dituelako. Eskerrik asko”.




Andoni Agirregomezkorta Laka

2016ko uztailaren 23an hil zen.
Andoni Agirregomezkorta Lakaren familiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ustekabean joan zara, Andoni,
eta horrek eragindako malkoak
lehortuz joango zaizkigu,
zure oroitzapena, ordea,
betiko izango da gure bihotzetan.***

Etxekoak



Lucia Larrañaga Idigoras

2016ko abuztuaren 14an hil zen, 60 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Javier Dominguez Osorio


2016ko irailaren 12an hil zen, 82 urte zituela.
Javier Dominguezen senitartekoek eskerrak eman nahi
dizkiete SAN LAZARO egoitzako langile guztiei urte hauetan
zehar jasotako arretagatik, bereziki azken une latz hauetan.



Javier Dominguez Osorio

***Borrokalari nekaezina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.***

2016ko irailaren 12an hil zen, 82
urte zituela. Sendiak eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta hileta
elizkizunetara agertu izana ere.





Herritik kanpo bidaiatuz eta familiaz gozatuz

Amaia Oñederrak urtebeteko lan eszedentzia hartu eta bere bikotekide Iker Leonardo eta seme-alaba Nora eta Ekaitzekin Elgoibartik kanpo hainbat abentura bizi izatea erabaki zuten. Aran bailaran, Vielhan, egin zuten hainbat hilabeteko egonaldia lehenengo eta Kuban bidaiatu zuten gero bi hilabetez bizikletaz. Beraiei gustatzen zaizkien inguruetan eta gogoko zaletasunetaz umeekin gozatzea izan da helburua.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Amaia Oñederra irakaslea da irakaskuntza publikoan eta aukera du lau urtez soldata txikiagoa jaso eta bosgarrena libre hartzeko. Bere bikote Iker Leonardo enpresa batean egiten zuen komertzial lana lagatzeko gogoz zegoen, eta ingeniari-tza ikasita zuenez, irakaskuntzan aritzeko masterra egitea erabaki zuen. "Umeak edukitzeko ere garai onean geunden eta urte sabatikoa hartuz gero, haiekin gozatzeko egokia izango zela pentsatu genuen". Pentsatu eta egin. 2015eko irailan hartu zuen Amaiak urte sabatikoa. Ikerrek, berriz, zortzi hilabeteko etena egin du. Tarte horretan zer egin pentsatzen hasi eta urtarrilaren 3an Vielhara, Kataluniako Aran bailarara joan ziren bizi izatera. "Elurra eta mendia dauden ingurua izanik guretzat leku polita da. Ezer lotu gabe joan ginen, abenturara. Lehen egunak furgonetan pasa genituen furgoneta leporaino beteta, neguko traste guztiekin eta guretzat apenas lekuri genuela. Beharbada hasierako hori izan zen zailena. Aste Santura arte han geldituko ginela erabaki genuenean etxe bat alokatu genuen Olaiz Txurrukaren laguntzaz. Izan ere, Aran bailaran jende asko ibiltzen da batik bat eskiatzen eta udan negurako

etxea alokatzen du. Austriara, Alpeetara, joatea ere pentsatu genuen, baina han hizkuntzarekin izango genuke zailtasuna".

ESKI PISTAK ETA MENDIA BERTATIK BERTARA

Amaia eta Ikerren helburua ez zen izan hemengoa alde batera lagatzea, baina bai hemendik irtetea. "Umeekin esperientzia berri bat bizi nahi genuen. 5 eta 2 urte dauzkate eta haietaz gozatzea da gu gehien betetzen gaituena eta guri gustatzen zaigun inguru batean eta kirola egiteko aukerarekin, are gehiago. Eskiatzeko pistak gertu geneuzkan eta goizean elurra egin eta arratsalderako argituz gero, joateko aukera genuen. Mendiak ere bertatik bertara daude". Hemendik irtenda gauza berriei nola aurre egin ikusi nahi izan dute. "Hori denontzat da aberasgarria, bai guretzat eta baita umeentzat ere, umeak izan arren kontziente dira, batzuetan guk uste baino gehiago".

Vielhako baina, ez da izan egonaldi hutsa. Umeak han eskolaratu dituzte eta ondo moldatu dira gainera. "Umeak oso irekiak dira eta eskolara berriak etorri gero ez dute inolako oztoporik jartzen. Nora 4 urtekoen gelan hasi zen eta berarekin

“Bidaian ikusi

dugu umeak ere

edozein

ingurutara

egokitzen direla,

gu beraiekin

egonez gero.

Gainera, beraiek

ere badira gure

irakasle”

ama euskalduna duen ume bat zegoenez, hark asko lagundu zion. Eskolak araneraz dira eta Norrentzat hizkuntza arrotza da. Hasieran eskolan ipuinak ez zituen ulertzen, baina bere izaera oso irekia da eta segituan lortu du berari ulertzea zeinu bidez izan arren eta berak ulertzea hitz egiteko gai ez bada ere. Ekaitzek ez ulertu arren, irakasleak euskarazko oinarritzko esaldi batzuk ikasi eta ondo moldatzen zen, bere partehartzea handia izan da”.

Umeek harreman onak egin zituzten eskolan eta gurasoek ere umeen aitzakian beste guraso batzuk ezagutu dituzte eta “bertakotzea erraza izan da. Euskaldunak, frantsesak, bailarakoak... askotariko jendea egon gara”.

Familiarentzat oso esperientzia aberasgarria izan dela diote. “Hemen errutina batean sartuta egonez gero eguneroko bizitzan gauzak nahiko linealak dira. Vielhan erosotasun baten barruan egon gara baina familia modura oso elkartuta laurok. Esperientzia honek eragin handia izango du guztiongan. Ekaitz txikia izan arren esperientzia hori beti eramango du barruan”.

HOTZETIK BERORA

Urte sabatikoa ez zuten Vielhan amaitu. Bueltatzeko hamar egun falta zirela hasi ziren pentsatzen falta zen denboran zer egin zezaketen. Hango erosotasunean gelditzeko aukera izan arren beste erronka bati aurre egitea pentsatu zuten. Eski denboraldia bukatu, Elgoibarren bi astez gauzak prestatu eta Kubara joan ziren bidaian bizikletekin. “Bizikleta asko gustatzen

zaigu eta aurrez Holandan ibiliak ginen umeekin proban bi astez oso gustura. *Warm Showers* sarea erabili genuen ostatu hartzeko. Zikloturistek mundu osoan barrena beste bizikleta zale batzuei etxea uzteko modua da eta gure etxera ere etorri izan dira. Euskaldunak nahiko hotzak gara, baina horrelako esperientzia bizitzean mundura irekitzen gara. Horrela ezagutzen da bestela ezagutuko ez genukeen jendea, oso jende interesgarria, bizikletan bidaiek egindakoa eta ez etxea soilik eskaintzen dutenak, baizik eta baita beraien esperientziak ere”.

Oraingo bidaiarako informazio bila ibili ziren umeekin joateko eta bizikletaz ibiltzeko errepideen egoera zein zen jakiteko, besteak beste. Gainera, biek beti izan dute Kubara joateko gogoia eta hori aukeratu zuten. Abioiko biletea hartu eta gero hasi ziren prestatzen. “Inprobisazioa aberasgarria izan daiteke, gauza asko prestatuta eraman arren kanpoko gauzen eraginez aldatu egiten baitira. Bestalde, sekulako logistika behar da: umeen karroa, bizikletak, zakuak, pardelak, arropak..., baina hori ere beste erronka bat da”.

Kubara joan eta leku turistiko zein hain turistikoak ez diren herriak bisitatu dituzte. Esaterako, askorentzat entzunak diren Habanan, Baraderon, Trinidad, Cienfuegos edo Santiago de Cuban izan dira.

Hasiera nahiko kaotikoa izan zela diote. Habanara iritsi eta ordu aldaketa, beroa, trafikoa, umeak pipertuta, gu ere estututa... “Kubatarrek turistak bizikletaz ikustera ohituta omen daude

nahiko toki ohikoa baita, baina umeekin ez dira asko ikusten eta horrek asko harritzen zituen, argazkiak ere atera zizkiguten”. Beraz, Habanako estualdia pasa eta gero beste herri batera joan ziren lasaitze aldera.

KUBATARREKIN ELKARBIZITZA

Pentsatua zuten ibilbidea nondik egin, baina asmoa aldatu behar izan zuten. “Jendea normalean hegoaldera jaisten da eta gorantz egiten dute haizeak laguntzen duelako. Guk, ordea, hamar orduko bidaia baten ondoren ez genuen nahi beste ordu mordo pasatzea hegoaldera iritsi arte, beraz, haizea kontra izan arren bizikletan hasi ginen”. Etparik laburrenak 30 kilometro ingurukoak izan ziren eta luzeena 65ekoa. “Gutxi gorabehera kalkulatu genuen eguneroko helmuga, baina umeen erritmora moldatzen ginen: gosea, egarria... Helmugako herrira iritsitakoan ostatua izaten zen lehen helburua”. Kubatarrek errentako etxeak izaten dituzte eta ikur bat izaten





dute agerian. Beraiek han bizi dira eta logelak alokatzen dituzte. "Goizean goiz abiatu eta 12:00ak alderako iristen ginen. Arratsaldeak lasai egoteko aprobetxatzen genituen: herria ikusi, etxeokoe umeak izanez gero beraiekin egon, etxeokoein tratua izan... Kubatarrez inguratuta egon gara eta etxe askotan umeak zeuden. Nora eta Ekaitz irrikitan egoten ziren etxean umeren bat egoteko eta kalean ikusten gintuztenek batzutan etxea eskaintzen ziguten".

Kuban bi hilabetez egon eta hangoekin harreman estua bizi izan ondoren, konturatu dira denari aurre egiteko gai izan direla. "Ikusi dugu umeak ere edozein ingurutara egokitzen direla, gu beraiekin egonez gero. Gainera, beraiek ere badira gure irakasle. Esaterako, sekulako beroa izan eta etxerik aurkitu ez arren umeak ez ziren kexatzen, askotan gu baino errazago moldatzen ziren eta familia moduan oso polita izan da".

Ekainean etorri ziren Kubatik, uztailean eta abuztuan Pirinioetan ibili dira eta Vielhako lagunak ere bisitatu dituzte. Irailean lanera bueltan etorri da Amaia eta umeak eskolan hasi dira. Urtebetez kanpoan ibili eta gero, ordea, itzulera ez omen da hain gogorra izan. "Jakin bagenekien urtebeteko etena izango zela

Autobuseko gazi-gozoek

Kontu bitxi asko bizi izan dituzte beraien bidaietan Amaiak, Ikerrek, Norak eta Ekaitzek. Zaila da denak laburtzea, baina gogoan dute Kuban gertatutako bat. Askok bereizten dira turistak eta kubatarrek han eta bi hilabeteko bidaietan tartean sentitu ziren elgoibartarrak. Noraren urtebetetzea ospatzeko Cayo Guillermera joatea pentsatu zuten eta bi aukera daude horretarako: turisten autobusak eta kubatarrena. Ezin zirela sartu jakin gabe kubatarrenean joatea pentsatu zuten eta beraiek ere gonbidatu egin zituzten.

Cayo hartara joaten ziren kubatarrek langileak ziren eta agiri bat zeukaten. "Autobus hartan dantzari talde gazte bat zegoen, jende umila, alaia eta jatorra. Nora al-tzoan hartu zuen haietako batek eta bidaietan giro onean joan ginen. Autobusa poliziak gelditu zuen, ordea, eta azterketa egin zutenean, kubatarrek ez ginenez, kalera bidali gintuzten. Dantza taldekoak saiatu ziren poliziarri eskatzen han ez uzteko baina turisten autobusera bidali gintuzten. Laguntzeko prestutasun hori, hain gertu azaldu izana eta bizitasuna barruraino sartu zitzaizkigun". Gertakari bitxia eta gazi-gozea izan arren gogoan gorde dute beste horrenbesterekin batera.

eta Kubatik bueltan, ekainean, eskolara joan nintzen nire burua kokatzeko. Irailean sekula baino hobeto egokitu naiz lanera. Gainera nire lana gustuko dut", dio Amaiak.

HURRENGO BIDAIA

Goatzeko hartu dute urte hau, baina hori pertsonaren araberakoa dela uste dute. "Batzuk urte sabatikoa hartu, umeak eskolara eraman eta etxeko erosotasunean beraien gauzak lasai egiteko aprobetxatzen dute. Guk bidaiak egin ditugu eta horrekin sentitzen gara gustura. Bidaiatzea gustatzen zaigu, umeekin esperientzia eta erronka berriei aurre egiteko prest gaude. Batzuek inbidia azaldu dute guk egindakoaren aurrean, beste batzuk, ordea, esan digute aukera edukita ere ez liratekela gu bezala joango".

Joan ziren, bai eta baita itzuli ere. Oraingo ez dira hasi hurrengo bidaiak prestatzen, baina datorren udan berriz bi hilabeteko oporrak izango dituztenez, pentsatuko dute nora joan. Herrialde nordikoetara joango lirateke noizbait gustura, baina bizikletaz joateko eurria izan daiteke arazoa. Bizikletarena bidaiatzeko modu polita dela ikusita eta Nora alaba karroan sartzeko gero eta handiagoa denez, bere bizikletan nola joan ere pentsatzen ari dira.

Nora joango diren ez dakite, baina argi daukate: "horrelako bidaiak bat egiteak beste esperientzia bat bizitzeko gogoak pizten du". Beraz, hurrengoan ere familian, batetik bestera, batetik eta bestearekin, elkarrekin gozatuz egingo dute bidaiak.

“Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez”

Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herria?

ikastaroa (10 ordu)

Urriak 5-13-19-26 eta azaroak 2
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan
Ordutegia: 18:30 - 20:30

Plaza mugatuak (30 laguntzako)
Prezioa: 30€ (27€ bazkideek)
Izena emateko: Elgoibarko Izarra 943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Irakasleak:
Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda



DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA

Ibaitarte Industriagunea 5, 1. (Elgoibar)
Basabe Industriagunea EO-10, 1. (Aretxabaleta)
Tel.: 943 741 126 - 943 796 280
e-mail: debabailarako@industrialdea.spri.es



Industriarako edo bestelako erabilera onargarrirako urbanizatutako lursailak salgai



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2016an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik irailaren 19tik 30era,
azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat.



elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus
943 744441



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera irailaren 19an, 18:00etan





Sanrock: Rock doinuak San Roken

ROCK JAIALDIA ANTOLATU DU ELGOIBARKO IZARRAK URRIAREN 1 ERAKO

- AINHOA ANDONEGI -



Antolakuntzan diharduten hainbat bazkide: Naia Membrillera, Julen Irizar, Amaia Lersundi, Aitor Nova eta Mikel Etxaniz.

Elgoibarko Izarrako hainbat bazkidek Kulturekintza taldea sortu zuten iaz, elkartearen kultur eskaintza aberas-teko eta bazkideen parte-hartzea susta-tzeko helburuekin. Ekimen horrek aruten eman ditu bere lehenengo fruituak, eta da-goeneko antolatu dituzte hainbat hitzaldi eta irteera herriko beste eragile batzuekin elkarlanean. Baina ekimen horietatik hara-tago joan nahi zuten taldekideek, euska-razko kulturari bulltzada emateko. Mahai baten bueltan batu ziren Elgoibarko Iza-rrako hainbat bazkide, eta ideia zapa-rrada baten ostean, Sanrock festibala gorpuzten hasi ziren. Izenak adierazten duen bezala, rock kontzertua izango da, San Roke-Azkue auzoan.

Baina ez da musika kontzertu soila izango. Musika emanaldi berezia anto-

latu nahi zuten, desberdina, berritzailea, marko eta ingurune berrian. Argi zeukaten ohiko kontzertuen formatutik aldendu eta herritarrei emanaldi berezia eskaini behar zirela. Horretarako, Sinuose taldeko ki-deekin batu ziren, haien esperientzatik edan eta gomendioak jasotzeko. Haien laguntza oso ondo etorri zitzaizela azaldu dute antolatzailleek, eta guztien ekarpenei esker, martxan da Sanrock musika jaial-dia. Urriaren 1ean izango da, San Roke-Azkue auzoko berdegunean. Aire libreak

Norberak eraman beharko du jana, eta edaria Elgoibarko Izarrak salduko du

ematen dituen aukera guztiak aprobetxatu nahi dituzte antolatzailleek ekitaldiari xarma berezia emateko. Eta xarma berezi hori piknik-ak emango dio. Lagun talde bakoitza bere mahai-zapi eta jatekoarekin joatea da asmoa, eta berdegunean mo-kadutxoak egiten duten bitartean, musikaz gozatzea. Edariak Elgoibarko Izarrak berak salduko ditu, ermita kanpoaldean jarriko duten txosnan, baina jatekoa ba-koitzak berea eraman beharko du.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da jaialdia, eta gaueko 23:30ak aldera arte luzatuko da. Lau musika talde lotu dituzte: Inazio Bereziartua musika eskolako rock taldea, Belceblues, Jon Basaguren eta Ko-kein.

Ordu tarte bakoitzak bere musika esti-loa izango du. Hori dela eta, publiko za-



bala espero dute; familiak umeekin, gazteak zein helduak. Denek izango dute lekua *Sanrock* festibalean.

Elgoibarko Izarra ahalegin berezia egiten ari da azken urteotan bulegotik plazara irteteko, eta elkarteak gazteetako. Elkarteak gaztetu nahi dute; gazteak erakarri nahi dituzte euskarara eta

Elgoibarko Izarrara, gazteak direlako etorkizuna. *Sanrock* jaialdiak gazteentzako osagai guztiak ditu: musika, jana, edana, aire librea, lagun giroa... Gazteentzako plan bikaina. Gazteak asko dute egin, eman eta esateko. Horretarako, Elgoibarko Izarrako Kulturekintza taldea irekita dago, eta edozein

herritarrek hartu dezake parte, baita gazteek ere. Norbere gustuko ekintzak antolatzeak aukera dute talde horretan parte hartzen dutenek, norberak gustura ikusiko lukeen kultur emanaldi hori antolatzeak aukera, hain zuzen ere. Elkarteko kideek pozik hartuko dituzte talderako lagun berriak.



16:00 MUSIKA ESKOLAKO ROCK TALDEA

Musika Eskolatik sortutako taldea da. Rock ikasgaia dute, eta nahi dutenek hartu dezakete parte taldean. Ondorioz, ez da talde finkoa eta urtetik urtera aldatu egiten da. Une honetan sei lagunek osatzen dute taldea: bi gitarra (Xabi Larrañaga eta Iñigo Arrese), baxua (Julen Perez-Cortes), pianoa (Nerea Lariz), bateria (Danel Legorburu) eta ahotsa (Miriam Ferreiro). Ane Zuñigak eta Maria Arrietak kolaborazioak egiten dituzte txistu eta biolinarekin. *Sanrock* jaialdian bost bat abesti eskainiko dituzte. 'Pozik' daude herritarren aurrean joteko.

17:30 BELCEBLUES

2005ean sortu zuten taldea Asier Elorza eta Ibon Larrañaga bergararrek, eta berehala batu zitzaizen Oihan Vega baterian. Gaur egun Gille dago Oihan Vegaren lekuan. Blues musika du oinarrian taldeak, baina rock, soul, country eta jazz estiloekin fusionatzen dute. Zuzeneko emanaldietan euskaraz eta ingelesez abesten dute, eta beraien abestiez gain, beste musikari batzuen kantak ere jotzen dituzte. Besteak beste, Steve Ray Vaughan, Jimmy Hendrix edota Jeff Healeyren bertsoiak entzuteko aukera eskainiko dute.



19:00 JON BASAGUREN

Izaki Gardenak taldeko abeslaria da Jon Basaguren. Nolabait esateko, Izaki Gardenak Jon Basagurenen bakar-kako abestiei forma emateko sorturiko taldea da. Abeslari izateaz gain, Euskadi Irratiko *Zidorrean* musika saioan egiten du lan. 2015eko udan *Aurri gara* diskoa grabatu zuten, eta aurrean lan hori promozionatzen dihardute. *Sanrock* jaialdian bakar-lari moduan jardungo du Basagurenak.

21:30 KOKEIN

Zaloak, Jatsuk, *Txitxesek* eta *Foryk* sortu zuten Kokein taldea Eibarren, 1999an. Bost kantuz osatutako maketa bat grabatu eta aurreneko kontzertuak eskaini zituzten taldeak. Horren ostean, Letek hartu zuen *Foryren* tokia baterian. 2002an *Gaztelupeko Hotsak* zigiluarekin euren estreinako lana kaleratu zuten, *Kokein* izenekoa. 2003an boskote bihurtu zen taldea, eta ordutik, hainbat disko kaleratu dituzte. Azken lanak *Izan* dauka izena. Euren ibilbideko abesti ezagunenak eskainiko dituzte *Sanrock* jaialdian, modu akustikoan.





V. URTEURRENA

**Leire
Ugarteburu Gabilondo**

**Urteko egun guztietan
bizi eta biziko
gure gogo-bihotzetan
maite hori!**

Etxekoak

2011 - 08 - 18



I. URTEURRENA

Begoña Ibarlucea Arano

2015eko irailaren 13an hil zen, 73 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 17,
19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



II. URTEURRENA

Juanito Loiola Bergaretxe

2014ko irailaren 14an hil zen 69 urte zituela.
**Bi urte pasatu dira eta galanta da hutsunea, baina zure irribarreak gurekin dirau.
Asko maite zaitugu.**

Etxeko sendiak



I. URTEURRENA

Jose Kortaberria Ansola

"Otsua"

2015eko irailaren 13an hil zen, 78 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 17,
19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Urtebete da
gure artetik joan zinela
baina beti izango zaitugu
gure oroimenean eta bihotzean.**

Etxekoak





Jesus Ansola Arana

"Txanbolin"

**Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.**

2016ko irailaren 11n hil da, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Mercedes Garcia-Abad Perez

2016ko irailaren 12an hil zen, 61 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Rosario Gandiaga Gainza

2016ko irailaren 4an, 89 urte zituela hil zen.

**Eskerrik asko ereindako eta emandako guztiagatik.
Askoko maite zaitugu, ama eta amama.**



III. URTEURRENA

Manolo Gil Zengotita

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenez
III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 17,
19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean,
eramango zaitugu betiko.**

Familiakoak



Badatoz 'Sotoko Hotsak'

Bi kontzertu antolatu ditu Sinuosek aurtengo zikloan

Sinuosek antolatuta, irailaren 22an eta 23an izango da aurtengo Sotoko Hotsak musika zikloa. Aurtengorako bi kontzertu prestatu dituzte: Petti eta Etxeko Uzta eta Inoren Ero Ni. Bi emanaldiak Kultur Etxeko Sotoan izango dira, eta sarrera 3 euro kobratuko dute.

Petti eta Etxeko Uzta. Eguena 22, 22:30ean.

Hotzikarak izenpean argitaratu du Pettik (Bera, 1973) bere azken diskoa. 1997an hasi zen Petti musikan, eta ordutik egin dituen lan guztiek Sinuoseraren arreta piztu dute. "Ahalmen berezia erakutsi ohi du beti", esan dute antolatzaileek. Blues-rock-folk musika estiloen tradizioa, bere berezko duen gaitasunarekin doi-doi nahasten du, hazkundera doazen ideia berritzaileak etengabe hobetuz. Pettiren ahotsaren sakonak gozoki atontzen du proposamenaren zaporea, abestien sinesgarritasuna azalera ekarriz. Eraginak esku-zabal jasotzen dituen eta, era berean, eragile bilakatu den artista da. Blues-soul-rock-rhythm&blues korronte unibertsalen ezagutza eskuratzeaz arduratzen da, eta bere estilo soila eta grabea besteentzat eredu izan ohi da.



Inoren Ero Ni. Barixakua 23, 23:00etan.

Mikelek, Okenek eta Drakek 2003an Andoainen sorturiko taldea da. BAP!! taldean elkarrekin arituak, buruan zituzten zirriborroei forma emateko berriz ere elkartzea erabaki zuten hiru lagun horiek, eta handik denbora gutxira Borja batu zitzairen taldera. Lehenengo entseguan ikusi zuten bazegoela kimika moduko zer-bait euren artean. Bigarren diskoaren grabaketaren ostean Drakek taldea utzi zuen eta bere ordez Mariano hasi zen. Horrek musika estiloan eta kantetan ñabardura berriak ekarri zituen. Taldean izandako azken aldaketa, berriz, baterian izan dute. Mikelek taldea utzi du, eta bere ordez, Guantxe sartu da, besteak beste, Lobo Eléctrico eta Señor No taldeetan ibilitako musikaria, eta egun, Capsula taldeko bateria-jotzailea. Inoren Ero Ni taldearen kantuek oso landutako egiturak dituzte. Sinuosekoen hitzetan, "elite zorrotzentzako musika da, doako keinu samurrik gabea, jendetza eta olatuetatik urruti dagoena; otsoentzako musika".

36ko Gerran tropa faxistak Elgoibarren sartu zirenekoa irudikatuko dute gaur eta bihar herriko kaleetan

80 urte pasatu dira tropa faxistak Elgoibarren sartu zirenetik. Azkaraten behera iritsi ziren Elgoibarrera, eta horrek hainbat eragin izan zituen herritarrengan. Batzuk ihes egin behar izan zuten, beste batzuk soldadu eta erreketek etxean edukitzera behartu zituzten, beste asko atxilotu eta hainbat fusilatu ere egin zituzten. Hura guztia ahanzturan gelditu ez dadin, eta hemendik aurrera oroimenean gordetzeko, orduko gertaeren errekreazioa prestatu dute Elgoibar 1936 eta Taupada taldeek. Gaur iluntzean eta bihar eguerditik aurrera izango da. Hala ere, ekitaldi nagusia bihar iluntzean egingo dute, 21:00etatik aurrera, Kalegoen plazan.

Antolatzaileek herritar guztiak inplikatu nahi dituzte errekreazio honetan, eta ikusle soilak baino gehiago izatea nahi dute. Besteak beste, ondorengoak eskatu dituzte: garai hartako erro-pak jantzita irteteko eskatu diete, teknologia berriak ez erabiltzeko, argazkiak flash-ik gabe ateratzeko, sakelako telefonorik ez erabiltzeko, tabernetan musika eta telebistarik ez ipintzeko...



San Bartolome jaien balorazio 'positiboa' egin du Elgoibarko Udalak



San Bartolome jaien balorazioa egin du Elgoibarko Udalak, eta besteak beste, jaietako harmonia, tolerantzia eta poztasuna nabarmendu ditu. Festetan izan den "giro ona" eta herritarren inplikazio "handia" goraiatu dituzte Udal agintari eta arduradunek. "Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu pertsoneri, elkarteei, kolektiboari, erakundeari, langileari..., oro har, jaiak aurrera eramaten laguntzen duten guzti-guztiei", adierazi zuen Elgoibarko alkate Ane Beitiak. Era berean, jaiak normaltasun osoz eta gorabehera aipagarririk gabe igaro direla azpimarratu zuen Andrea Arriola Kultura saileko zinegotziak.

Hainbat urtetan krisiak eragindako murrizketak jasan ditu jaietako aurrekontuak, aurten ordea, Udalak 172.616 euroko aurrekontua bideratu du, iaz baino 14.000 euro gehiago. Jaiari emandako bultzada ekonomiko honi esker, egitarau "aberatsagoa" prestatzeko aukera izan dutela azaldu dute arduradunek, eta, oro har, "pozik" agertu dira ekitaldiek izandako erantzunarekin. Balorazio zehatza eta zabalagoa irakurtzeko: www.barren.eus

'Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez' ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak

Gotzon Garate zenaren oroimenez urtero antolatzen duten ekimenaren baitan, *Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez* ikastaroa antolatu dute aurtengorako Elgoibarko Izarrak eta Udalak, gure herria hobeto ezagutu eta elgoibartarron euskaltasuna sustatzeko helburuarekin. "Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herria?" galderari erantzuten saiatuko dira, eta kantagintzak euskaldunon imajinarioa eraikitzeko orduan izan zuen, eta orain duen, garrantzia landuko dute. Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaran izango dira irakasleak; musikaria lehenengoa eta idazlea bigarrena. Hamar orduko ikastaroa izango da, eta bost egunetan eskainiko dute: Urriaren 5, 13, 19 eta 26an, eta azaroaren 2an. Bi orduko saioak izango dira, 18:30ean hasita. Prezioa 30 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako bazkideek 27 euro). Interesatuak irailaren 30era arte dute izena emateko aukera: 943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

'Tertuliak' egitasmoan izena emateko epea zabalik dago

Euskaraz berba egin nahi baina erraztasunik ez daukatenei zuzenduta dago *Tertuliak* programa. Lauzpabost laguneko taldeak osatzen dira eta talde bakoitzean euskaraz ondo dabilen lagun bat egongo da, taldea dinamizatzeko. Urriari hasi eta ekainera arte izango da *Tertuliak* egitasmoaren ikasturtea, eta programaren oinarrian astero izango den ordubeteko tertulia-saioa dago. Hor-taz, programan parte hartzea gonbidatuta daude euskaraz berba egin nahi baina horretarako aukerarik edo erraztasunik ez daukaten herritarrak. *Tertuliak* programa doan da eta izena emateko epea irailaren 30ean amaituko da. Programaren eragileak Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, AEK euskaltegia, eta Udal Euskaltegia dira, eta Udalaren diru-laguntzarekin finantzatzen da. Izena emateko eta informazio gehiagorako: AEK euskaltegia (607 601 423), Udal Euskaltegia (943 74 27 31) edo Elgoibarko Izarra (943 741 626).

'Azterkosta' erakusketa Mendaroko udaletxean

Itsasbartzerrari buruzko Europako In-gurumen Hezkuntza programaren ego-kitzapena da *Azterkosta*. Europako proiektu hori 80ko hamarkadaren amaiera aldera sortu zen Irlandan, eta 1992tik dugu Euskal Autonomia Erki-degoan. Harrezkero, itsasbartzerraren berezitasunak ezagutarazten, horrek dituen arazoak jakinarazten eta gizarte kostaldeko gune naturalak babes-teko beharraz kontzientziatzen lagundu nahi duen tresna da. Horri buruzko 13 panel jarri dituzte ikusgai Mendaroko udaletxean, irailaren 20ra arte. 9:00etatik 14:00etara eta, 17:00etatik 20:00etara.

Dena prest irailaren 24an jokatuko den Debabarreneko II. Raiderako

Debabarreneko II. Orientazio Raida antolatu du Morkaiko mendi taldeak. Irailaren 24an jokatu da Elgoibar inguruko mendietan eta baita erdiguneko kaleetan ere. Izan ere, Kalegoen plazan hasi eta bukatuko da proba. Debabarreneko Raida gainera, Iparraldeko Raid Abentura Ligako (LINRA) seigarren proba puntuagarria izango da aurten. Iaz, estreinako edizioan, 37 bikotek hartu zuten parte. Partaideek bikoteka aritu beharko dute, eta bikoteak emakumezkoenak, gizonetzkoenak edo mistoak izan daitezke. Bikote bakoitzak zazpi ordu izango ditu gehienez proba amaitzeko.

Antolakuntzak hainbat kontrol leku jarriko ditu ibilbidean zehar, eta bikoteek kontrolgune horietatik pasatu beharko dute, puntuak



eskuratzen. Ahalik eta puntu gehien lortzea izango da helburua, zazpi ordu horien barruan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, zabalik dago izen-ematea. Raideko ibilbidearen eta proba berezien inguruko informazioa aurreratu dute antolatzaileek: "Raid guztia osatzea zaila izango da, baita fisikoki indartsu dauden eta ondo orientatzen diren bikoteentzat ere. Hala ere, erraza izango da norbere indar eta ezaugarrietara egokitzen den raida egitea, parte hartzaileek ibilbidea nahieran laburtzeko aukera izango dute-eta". Raidak lau sekzio izango ditu eta lau proba berezi ere egin beharko dituzte parte hartzaileek: eskalada edota rapela, jomugara tiro egitea, norabidean oinarritutako orientazioa eta memorian oinarritutako orientazioa. Sari banaketa ekitaldia eta bazkaria Maalako parkean egingo dituzte.



Debabarrena areto futbol taldeak bazkide kanpaina jarri du martxan



Bazkide berriak egiteko kanpaina jarri du abian Debabarrena areto futbol kirol-taldeak. Hala, 2016-2017 denbo-

raldian bazkide izateko ordaindu beharreko kuota 30 eurokoa izango da.

Concepto Egilek etxean jokatuko dituen partidetan sarrerarik ez ordaintzeaz gainera, bazkideek beste hainbat abantaila izango dituztela jakinarazi dute Debabarrenako arduradunek. Bazkide egitea nahi duenak Kutxabank (2095 5079 82 1064211336) edo Laboral Kutxako (3035 0210 58 2100009871) kontu korrontean 30 € sartu behar ditu, edo Debabarrenako kideren batekin harremanetan jarrita ere egin daiteke bazkide. Baita partida egunetan ere, leihatilan. Era berean, baz-

kide txartelak partiden hasieran banatuko dituzte.

Aurkezpen partida

Concepto Egilek denboraldi berri-rako osatu duen taldea aurkezteko goi mailako partida jokatu zuen, joan den zapatuan, IMH kiroldegian. Frantziako bigarren mailan jokatu duen UJS Toulouse taldea izan zuten aurkari eta maila handiko taldea dela erakutsi zuten frantziarrek. 0 eta 3 gailendu ziren. Harma-lak bete zituzten zaleek jokalariek frantziarren teknika eta jokaldiez gozatzeko aukera izan zuten.

Elgoibar Bi Erroberetan bizikleta irteera domekan egingo dute



Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarateak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen du Elgoibar Bi Erroberetan irteera. Domeka honetan, irailaren 18an, egingo dute Sallobentara joan etorria bizikletaz.

10:00ak inguruan Kalegoen plazatik abiatu, eta, herriko kaleetatik itzuli bat egin ostean, Sallobente-Ermuaraneraino joango dira. Handik, Kalegoenera itzuli eta txorizo egosia eta freskagarriak banatuko dituzte antolatzaileek.

Indarrak berreskuratu ostean, molto motoekin, trizikloekin eta bizikleta txikiekin egiteko lasterketatxoa antolatu dute. Kalegoen plazan hasita, Errosario eta San Bartolome kaleetan zehar joango dira partaideak, berriz ere Kalegoen plazara iritsi arte. Lasterketaz gainera, gaztetxoek bizikleta gainean duten trebezia neurtzeko balioko duen ginkana bat ere prestatu dute. Antolatzaileek jakinarazi dute-nez, haur nahiz heldu, herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

Atletismo denboraldia martxan



Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, irailaren 19an hasiko dute denboraldi berria, Eskola Kirolarekin elkarlanean. Entrenamenduetarako egunak astelehenak, asteazkenak eta ostiralak izango dira, 18:30etik 20:00etara bitartean, Mintxeta kirol gunean. Interesatuek egun eta ordu horietan Mintxetara azaldu eta atletismo taldeko arduradunekin berba egin beharko dute taldera batzeko.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 1 – Mondragon 2 (Oho. Erreg.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17

11:00 Elgoibar – Anaitasuna (Kad.)

17:00 Elgoibar – Zarautz (1. erreg.)

Domeka, 18

11:30 Elgoibar - Anaitasuna B (Jub.)

PILOTA (Elgoibar Ikastolan)

Barixakua, 16

20:00 Lagunak – Izurun (Eskuz binaka)

Gipuzkoako Txapelketa, 2. maila.)

20:45 Lagunak – Azkoitia (Eskuz binaka)

Gipuzkoako Txapelketa, 3. maila.)

21:30 Lagunak 2 – Lagunak 1 (pala, binaka)

Patinaje ikastaroak emango dituzte Mendaron

Pili Villanueva azkoitiarrak umeentzako eta nagusientzako patinaje ikastaroak eskainiko ditu Mendaron. Umeentzako eskolak irailaren 20an hasi eta abenduaren 13ra arte izango dira asteartean, 18:00etatik 19:00etara, Goñati pilotalekuan. Nagusientzako eskolak ere Goñatin izango dira, baina asteazkenetan, eta 19:00etatik 20:00etara. Irailaren 21ean hasiko da nagusientzako ikastaroa eta abenduaren 14ra arte izango da. Babesak (eskumuturretakoak, ukalondoetakoak, belaunetakoak eta kaskoa) derrigorrezkoak izango dira. Izena emateko 600 658 203 telefono zenbakira deitu.



LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Goizez, orduka. ☎ 647 100 572

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Formazioa eta diplomak dauzkat. ☎ 671 989 434

Garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 617 571 210

Gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolako lanak egiten laguntzeko. Gizarte Hezkuntza diploma-tua. ☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 620 712 478

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 677 259 560

Garbiketa lanak egiteko prest nago. El-goibartarra eta euskalduna naiz. ☎ 649 782 967

Tituludun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Talde txikiak eta baita etxean ere. ☎ 680 319 002/943 744 062

Geriatría laguntzailea, adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Paseatzeko prestutasuna. ☎ 646 931 162

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. Esperientzia daukat. ☎ 632 253 315

Gauetz, ospitalean, gaixoak zaintzeko prest. ☎ 642 636 525

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 408 771

Garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago. Goizez edo eguerdian, 15:00ak arte. ☎ 617 248 087

Nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 628 738 472

Lan bila. Orduka lan egiteko prest nago. Interna eta asteburuetan ere. ☎ 631 480 376

Lan bila. Orduka lan egiteko prest nago. Interna eta asteburuetan ere. ☎ 631 212 497

Eraikuntza lanetan esperientzia duen pertsona lan bila. Baldosa, sukalde, pintura, konponketak... 20 urteko esperientzia daukat. ☎ 634 245 882

Lan bila nabil. Sukaldari laguntzaile,, garbiketa lanetan edota umeak zein nagusiak zainduz. Orduka. ☎ 602 047 812

Etxeak eta portalak garbitzeko, pertsona nagusiak zaintzeko eta asteburuetan lan egiteko prest nago. ☎ 699 609 190

Edozein lan egiteko prest nago. 11:00etatik 17:00etara. ☎ 632 564 679

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Paseatzeko prestutasuna. Gauetz ere, ospitalean zein etxean. ☎ 660 511 7817/ 943 742 330

Gabi jateak jantokirako zerbitzaria behar du. Jardun osoa. Euskalduna izatea hobetsiko da. ☎ 943 741 230

Asteburuetan pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 631 974 374

Pertsona arduratsua, esperientziaduna, erreferentzia onak. Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 681 065 683

Eskaizak

Ingeles irakasle partikularra behar da, 20 urteko gazte bati eskolak emateko. ☎ 630 410 294

Pertsona bat behar da, goizez umeak zaintzeko. ☎ 679 197 750

Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dugu. Zortzi orduko lan jarduna, goizez. ☎ 659 287 122 (arratsaldez deitu)

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 620 712 478

Alokairuko etxe bila gabiltza lau pertsonentzako. Hiru logelarekin eta igogailuarekin. Ahal dela Elgoibarko erdigunetik gertu. ☎ 671 289 584

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarrin. Logela bat edo bi gehienez. ☎ 631 098 995

LOKALAK.....**Alokairua**

Eibarko Alberto taberna traspasoan ematen da. Juan Gisasola kalea, 10 (Elgetako bidean). Bezero kartera ona. ☎ 692 321 479

BESTELAKOAK.....

DBH4. mailako liburuak salgai. Egoera onean eta merke. ☎ 650 783 512

Bikientzako haur-kotxe osoa salgai. Egoera onean. Jane twin two modeloa. Bi matrix aulki, euritako plastiko guztiak, poltsa... 300€. ☎ 676 889 260

Lau metro diametroko eguzkitakoa eta zintzilikatze hamaka salgai. Egoera onean. ☎ 943 531 648

OSPAKIZUNAK.....

1948an jaiotako bazkaria irailaren 24an. 12:30ean Kalegoen plazan elkartu, mokadutxo egin eta argazkia atera. Bazkaria Sigman, 14:30ean. 65 euro ingesatu *Nacidos en 1948* kontzeptuarekin, Julian Mugicaren izenean dagoen Laboral Kutxako zenbaki honetan: 3035 0007 23 00 7113-2820



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Orain dela gutxi, nire komunitatean, etxejabe baten laguna bisitan etorri zen eta eraikinetik irteterakoan, portalean labaindu zen ur putzu bat zegoela-eta. Egun hartan euria barra-barra ari zen. Esan digutenez, haustura handia izan du eta horrek arduratu egin gaitu. Erantzukizunik ba al daukagu hori dela-eta?

Nire ustez, putzu hura egun horretan euria goian behean egiteak eragindakoa izatea ondorio naturala izan zen. Beraz, pertsona hura ezustean edo ezinbestean jausi zen, eta etxejabeen komunitatea ez zen errudun izan. Hortaz, ezin da esan komunitateak ez dituenik bete erorketa honen ondorioz sortutako akzio edo omisio obligazioak. Gainera, komunitatea ez da istripuaren arduraduna, eta nire ustez, ez dago derrigortuta erorketa honen ondorioen erantzule izatera.

Argitu behar da batzuetan ez dela ardurarik izaten baldin eta euria egin eta norbait jausten den bitartean pasa den denbora laburra bada.

AHOLKUA: Euria egin duenetik denbora asko igaro arren ura inork lehortu gabe portalean badago nire ustez, kasu horretan, baliteke erantzukizuna komunitatearena izatea arduragabekeria berea baita.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 3 urte bete zenuelako. Etxeko guztien partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Ga-razi**, gaur 5 urte bete dituzulako. Muxu potoloa familiakoen partetik.



10 urte borobil txapeldun! Zorionak, **Markel**! 10. urtebetetzean familiakoen, bereziki Endika eta Danielen partez.



Zorionak, **printzesa**, asteartean 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Hai-zea**, printzesa! gaur 6 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak! Ostira-lean, kafe orduan ospatuko dugu. Ondo pasa eguna!



Zorionak, **Nora**, eguaztenean 4 urte handi bete zenuelako. Patxo potolo bat etxeko-koen partez.



Zorionak, **Luken**, 5 urte. A ze mutil puska etxean! Asteazkenean primeran pasa genuen. Muxu bat, familia-koen partez.



Zorionak, **Ian**, 2 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat aitxixamama eta osaba-izeben partez.



Aratz, bi urte igandean! Zorionak etxeko denon partez, bereziki arreba Jare eta lehengusu Ibai eta Ikerren partez.



Ondo hasi astea! Asteartean kafearen zain izango gaituzu! Zorionak!



Zorionak, **Asier**! Zazpi urte jada! Patxo asko etxeko denen partez!



Zorionak, **Udane**. Gaur 10 urte. Ondo-ondo pasa etxeko guztien partez.



Ongi etorri abuztuaren 30ean jaio zen **Lukar**! Familia guztiaren partez.



Zorionak, **Maria**, uztailen 9 urte bete zenuelako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Yolanda**! Urtebetetze egun ona pasatu. Familia guztiaren eta bereziki Lander eta Mararen partez.



Zorionak, **Ene-ritz**, neska handi! Jada 8 urte. Muxu potolo bat etxeko-koen partez.



Zorionak, **Mikel** eta **Nerea**. Abuztu-aren 5 eta 2 urte. Muxu potolo bana familiakoen eta bereziki Igorren partez.



Zorionak, **Sara** eta **Erik** zuen zazpi-garren eta laugarren urtebetetzean. Muxu handi bana etxeko-koen partez.



Zorionak, **Beñat** eta **Maialen**, etxeko denon eta bereziki Maite, Ane eta Ene-koren partez. Asko maite zaituztegu!



KANKU ZENTRO BERRIA!

C.D KANKU

Matrikulaldia eta lehen hilabetea DOAN!!

Informa zaitez: 652 702 303 / 656 741 167 telefonoetan edota Pedro Murutza, 9an (zatoz gure instalazio berriak ezagutzera)

- * Tai chi
- * Chi kung
- * Kung Fu
- * Pilates eta Gimnasia Terapeutikoa
- * Fitness Tonifikazioa
- * Karate
- * Fit Box
- * Zumba





ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

LASAITU ETA BABESTU BEGIAK PANTAILA ELEKTRONIKOEN AURREAN



2016 **Veritas LIAZ** enpresak



16 BARIXAKUA

Iluntzean Milizianoen gaua.

17 ZAPATUA

Arratsaldean Tropen sarrera.

21:00 Kandelen piztutzea. Kalegoenen.

18 DOMEKA

10:00 Elgoibar bi erroberatan. Kalegoen plazan hasita.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. *Fra Diavolo, Charleston Forever, El año pasado por agua, Happyland* eta *El Relicario*. Herriko Antzokian.

13:30 EH Bilduren hauteskunde kanpainako ekitaldia. Kalegoen plazan.

19 ASTELEHENA

19:00 Erakusketa: *Legion Condor Alemana Euskal Herriko bonbardaketetan*.

Aurkezpena: Klaus Balezta. Kultur Etxean. Astelehenetik barixakura, 18:30-20:30. Zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-20:30. Urriaren 1era arte.

20 ASTELEHENA

11:00 EAJren hauteskunde kanpainan.

21 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia: *Frankismoaren aurkako Argentinako kereila*. Hizlaria: Josu Ibargutxi. Kultur Etxean.

22 EGUENA

18:30 Garagardo ferieren inaugurazioa. Sanlo E.K.T.

22:00 Garazi Ayesta eta Xabi Larrañagaren kontzertua. Maalan.

22:30 Kontzertua: Petti & Etxeko Uzta. Sotoko Hotsak. Kultur Etxeko sotoan.

23 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Maalako parkean.

18:30-20:30 Odol-ematea. Odol-emateen elkartaren lokalean

18:30 Garagardo feria. Sanlo E.K.T.

22:30 Kontzertua, The Romanticos taldearekin. Maalan.

23:00 Kontzertua: Inoreneroni. Sotoko Hotsak. Antolatzailea: Sinuose. Kultur Etxeko sotoan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K	09:00 - 22:00
	16 Barixakua ORUESAGASTI
	17 Zapatua GARITAONANDIA
	18 Domeka GARITAONANDIA
	19 Astelehena IBAÑEZ
	20 Martitena GARITAONANDIA
	21 Eguaztena ETXEBERRIA
	22 Eguena FERNANDEZ
	23 Barixakua YUDEGO

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19
Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142
* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638
* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



Flexiahorro

% 0,55

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AJURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau oparibiko dizugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 15,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR,
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72



Zinea (Herriko Antzokian)



'Cegados al sol'

16 Barixakua, 21:30



'Pastel de pera con lavanda'

17 Zapatua, 21:30
18 Domeka, 19:00
19 Astelehena, 21:30



'Un amor de verano'

20 Martitzena, 21:30
21 Eguaztena, 21:30



'Los caballeros blancos'

22 Eguena, 21:30
23 Barixakua, 21:30



Ignacio Elorza Ansola

"Etxabe"

2016ko irailaren 12an hil zen, 77 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



LXXX. URTEURRENA



Agustina Irigoien Manzidor hiru urteko haurra, Errosario kalean garbitu zuten 1936ko irailaren 26an, zetorren zorigaitz ikaragarri hark familia harrapatua zuenean. Gogoan zaituztegu. Elgoibar, 2016.



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Lehen begiratuan... kolore asko. Kolore bi-
ziak. Betaurreko moreak, a ez, urdin-go-
rriak. Buruko zinta arrosa-txuria. Erloju gorria.
Elastiko urdin-txuria. Zinta beltz bat airean. Eta
mendi berde batzuk besoan. Bigarren begi-
ratuan... beso iharrak. Oilo larrua beso iha-
rretan. Neke-orbanak aurpegian. Listua aho-sudurretan. Eta irribarre
handi bat. Hirugarren begiratu subjektiboa da, norberak jantzi nahi
dituen betaurrekoen arabera. Nik neuk zorientasuna ikusten dut.
Zerbait lortzeko dakarren zorientasuna. Sufrimenduaren eta esfortzuaren
osteko zorientasuna. Ikusten dut duela 20 urte ezagututako neska bat,

orain munduan, gorenean, berean. Eta irribarre bera. Kameralari bat
ere ikusten dut, beti hari begira. Mendaroko harakinaren alaba, orduan
eta orain. Urte asko igaro dira. Korrika hasi, eta, mailaz maila gero
eta gorago mendian. Pausoak, jauziak, lesioak, minak, garaipenak,
garaikurrak, entrenamendu amaigabeak, bidaiak. Etxean, atzerrian,
eta munduan. Harria, lokatza, belarra. Eguzkia, euria, txingorra. Erori-
koak. Eta odola ere bai tarteka. Erori eta berriz altxatzea. Etengabe al-
txatzea. Ederra da bizitzan nor bere bidea aukeratu ahal izatea. Ona
nahiz txarra. Laudorioak eta kritikak, garaipenak eta porrotak. Denek
osatzen dute bizitzaren bidea. Eta hauturik onena, beti, maldarik piko-
enari ere, irribarre egitea. Maite.

*'Zorientasuna ikusten dut. Zerbait lortzeko dakarren zorientasuna.
Sufrimenduaren eta esfortzuaren arteko zorientasuna'*

BOSCH GARBIGAILUA

WAT28468ES
8KG - 1400 RPM
ECOSILENCE motora
(10 urteko berrera)
Kontsumoa aurrezten du
%30 gutxiago



499€

BOSCH PLANTXA

TDA70EASY
2400W
I-TEMP
(ehun mota guztiak lisatzen ditu
dagokion temperaturan)
EASY CONFORT
(temperatura autoegokitzen du)



69,90€

SUKALDERAKO BRANDT INDUKZIO PLAKA TI118B

9 Potentzia maila
28zmkko gune handia



299€

BRANDT LABEA FP1266X

Pirrolotikoa
Display digitala
Multifuntzioa
A+



349€

Eskolara itzulera!



MILAR BIRE

Dendako prezioak. Agortu arte eskuragarri.

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es



erabili
euskerara
utiliza el euskera

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

16-17 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: Irailaren 28ra arte

Langabetu, ikasle eta gurasoek,
MARIKULA ERDIA

Ikastaro amaleran BEKAK denentzat.
(Baldintzak betez gero)

Informa zaitez Udal Euskaltegian!

ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2 - Tel.: 943 742 731

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskerara klaseak • clases de euskera





MAIALEN GURRUTXAGA
ELGOIBARKO EUSKARA ETA GAZTERIA ZINEGOTZIA

JOSEBA EGIBAR
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO ZERRENDABURUA



URKULLU
LEHENDAKARI

ERAIKI
EUSKADI

IRAILAK 20, ASTEARTEA
11:00ETATIK AURRERA ELGOIBARREN

